

Open  
Government  
Partnership



**Euskadi**

OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza plana

Herritarrentzako laburpena

# Zergatik?

## Erakundearteko plan bat?

Euskal herritarren bizitza eta parte-hartze politikoa eskumen -edo erakunde - mugez ulertzen ez duten espazioetan eta uneetan gertatzen da

Erakundearteko ankidetzan eta herritarren parte-hartzean oinarritutako gobernu irekiaren eredu behar dugu

Erakundearteko

erakundearteko erakundeak eta kezkak puztekatzen dituzten tokiko gobernuak

Elkarrengandik ikasteko eta jardunbide egokiak elkar trukatzeko aukera



# Nola?

## Gobernu Irekiaren Euskadirentzako Ekintza Plana



Elkarlanerako 2 urte

- S konpromiso
- Kontuak ematea
- Open data eta linked data
- 1-lab herritarreko parte hartzea
- Open eskola
- Integritatea



Lan egiteko eredu irekia:

- Foro Erregularra: osaketa paritaria, ordezkariak publiko eta pribatuarekin
- Foro Irekia: online eta aurrez-aurreko berak
- Konpromisoen arabera lan taldeak herritarren, teknikarien eta politikarien parte hartzearekin



Balioak

- Eraberrazresuna
- Hizkuntza erraza
- Lankidetzakultura
- Koordinazioa
- Progresibotasuna
- Lidergo partekatua

Open Government Partnership Euskadi



# Zer?

## Abiapuntua ERRONKAK

Gardentasuna	Integritatea	Datu irekiak	Kulturgialla
Berrerabilpena	Oinarriak bateratu	Zer1>itzuak sortu	Bkarrtagingarritasuna
Kontuak ematea	Kudeaketa aurreratua	Parte-hartzea	Herritarren arretazkerituak
Ebalazioaren kultura	Jardunbide egokiak OTokortzea	Esperimentazioa eta benikuntza	Sistemak osatu

**GOBERNU IREKIRAKO ALIANTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONPROMISOETAN**

Lankidetzan oinarritutako prozesu baten ondoren, jarraian ageri diren bost konpromisoak sartu dira Gobernu Irekiaren Euskadirentzako 2018-2020 Ekintza Planean.

Konpromiso horiek aurrera eramateko ardua euskal gizarteak eta bertako erakundeek partekatuko dute. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan Gobernu Irekirako Aliantza (OGP) sustatzen duten bi erakundeak, gutxienez, zuzenean parte hartuko dute, eta ekimenaren buru gisa jardungo dute.

Ekintza Plana gauzatzeko, bada, dagokion konpromisoan oinarritutako bost talde antolatuko dira. Talde horietako burua fitxa bakoitzean azaltzen den erakundea edo erakundeak izango dira, eta horiekin batera parte-hartzaile izango dira zuzendaritza-taldeko gainerako erakundeak eta herritar antolatutak nahiz antolatu gabeak.

**HERRITARREN BERTSIOAREN BEHARRA**

Plan honetan jasotako konpromisoak eta erronkak hurrengo bi urteetan zehar garatuko dira, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eta herritarren parte-hartzearen bidez.

Plana modu arrakastatsuan gauzatzeko, ezinbestekoa izango da, neurri handi batean, edukiak zein prozesua ulergarriak izatea eta haietara iristeko bideak erraztea. Konpromiso-orriak herritarrekin eta GKEetako ordezkariekin batera idatzi dira, konpromisoetan oinarrituetako lan-taldeen barruan.

KONPROMISOA	LIDERGOA	ZUZENEKO EKARPENA
<b>1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez</b>	Eusko Jaurlaritza-Gobernu Irekiaren Zuzendaritza Bizkaiko Foru Aldundia	Gasteizko Udala Donostiako Udala Bilboko Udala
<b>2. Open data Euskadi eta Linked Open data</b>	Eusko Jaurlaritza-HHABHZ Bizkaiko Foru Aldundia	Donostiako Udala Bilboko Udala
<b>3. Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin</b>	Eusko Jaurlaritza-HHABHZ Innobasque Gipuzkoako Foru Aldundia	Bilboko Udala
<b>4. Open Eskola: herritarrentzat irekitako eskola</b>	Gasteizko Udala Arabako Foru Aldundia	Bilboko Udala Innobasque
<b>5. Integritatearen euskal sistema</b>	Gipuzkoako Foru Aldundia	Arabako Foru Aldundia Donostiako Udala Bilboko Udala

**K1 - KONTUAK EMATEA AGINTALDIKO PLANEN BIDEZ**

**2018ko IRAILAREN 1etik – 2020ko ABUZTUAREN 31ra**

**NORTZUK BULTZATUKO DUTE KONPROMISOA**

Eusko Jaurlaritza: Gobernu Irekia  
Zuzendaritza.

Bizkaiko Foru Aldundia: Bizkaiko  
Behatokia

**KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA**

**ZEIN DA ERRONKA**

Ez dago Euskadin kontuak emateko euskal estandarrik, ez kontuak emateko informazioari edo edukiei dagokienez, ez oinarritu beharko litzatekeen metodologiari dagokionez. Horrez gain, ez dago oso finkatuta erakundeen artean herritarrei kontuak emateko kultura ere. Udalek, aldundiek eta gobernuak beren formatuak aukeratu dituzte, batzuetan formalegiak, edo kasurik okerreanean, beraien web-orrietan kontuen emate hori erraz ikusteko moduan ez argitaratzeagatik.

Herritarrek ez dituzte modu berean jasotzen erakundeek hartutako konpromisoen betetze mailari buruzko azalpenak, agintaldiko planen eraginari eta egiturari buruzko irizpide partekaturik ez dagoelako. Horrez gain, aurrekontuaren ikuspegia ez da modu egokian sartu plangintzan, aurrekontuaren epeak (urtekoa) eta agintaldiaren plangintza (4 urte) bateratzeko moduan behintzat.

Horren guztiaren ondorioz, herritarrek ez dute kudeaketaren egoerari eta ekimen politikoei buruzko informaziorik, beraz, zaila dute parte hartzea.

**ZER DAKAR KONPROMISOAK**

Herritarrek kontuak ematearen arloan antzematen dituzten beharrei entzutea: Adierazle zehatzak, hitzartutakoak, konparagarriak, trinkoak eta eskuragarriak (?) sinplifikatzea, zuzentzea, gardenak izatea eta erabiltzea.

Dokumentu/plataforma baten erabilera ezartzeak, hala nola Gobernu Programa edo Agintaldiko Plana, helburuen eta horiek garatzen dituzten berariazko jardueren zerrenda zorrotza aurkezteko aukera ematen du. Konpromiso honek antolatzea eta ebaluatzea ekartzen du; baita bultzada politikoa eta administrazioko langileek parte hartzea ere. Horrez gain, erakundeek eta herritarrek elkar garatzen badute, formatu bisual eta irisgarri batean aurkezteari eman beharko zaio lehentasuna, eta herritarrek proiektuen aurrerapenaren inguruan dituzten zalantzak jaso beharko dira.

Azalpen publikoak emateari buruzko aurretiko pedagogia bat eta emaitzen jakinarazpen eraginkorra ematea interesdunei (funtzionarioei, interes-taldee, zerbitzu publikoen erabiltzaileei eta abar): zer egin den, zer ez den egin eta zergatik.

	<p>Konpromisoak agintaldiko plan hauetan argitaratuko den informazio-egitura komun bat erabakitzea dakar, udal txikiak, eskualdeko goiburuak, hiriburuak, aldundiak edo gobernua bera diren kontuan hartu gabe. Eta beste fase batzuk ezartzeko aukera eman behar du. Horrela, baliabide eta esperientzia gutxien dituztenek aurrera egin ahalko dute, agertokirik egokienera heldu arte.</p> <p>Horrez gain, parte-hartze metodologia bat ezartzea ere ekartzen du, kontuen emate hori formatu digitalean edo zuzenean emateko. Horri esker, gizarte-auditoretzako eredu osoago bat lortuko da, eta elkarte eta interes-taldeen gain, herritarrek ere parte hartzea sustatuko da.</p>
<p><b>NOLA LAGUNDUKO DU KONPROMISOAK ERRONKARI AURRE EGITEN</b></p>	<p>Kontu-ematea ezartzea, agintaldiko planen bidez eta herritarrek haien jarraipena eta ebaluazioa egiten lagunduz. Horren helburua herritarrek gai publikoetan parte-hartze handiagoa izatea da. Halaber, erantzukizunak partekatu egingo dira, kudeaketa publikoak eta ematen diren proposamen eta balorazioen gehikuntza kualitatiboak zer ekar dezaketen zuzenago jakinez. Paradigma aldaketa bat bilatzea, “kudeaketa ona susmatuz” edo “gehiago jakiteko jakin-mina agertuz”.</p> <p>Zabalduko den informazioa estandar bihurtzeak, sinesgarritasun handiagoa ematen lagunduko du, lurraldeen eta udallerrien artean konparatu ahalko da, eta herritarrek informazio gehiago izango dute parte hartzeko.</p> <p>Horrez gain, ebaluazio-prozesuak arrazionalizatuko dira, ahal den neurrian digitalizatuz.</p> <p>Guztientzako metodologia eta tresnak eskainiko ditu, malguak direnak, eta administrazio-mailetan aurrera egin ahalko du, tamaina, ezagutza eta baliabideak edozein direla.</p>
<p><b>ZERGATIK BALORATZEN DU KONPROMISO HORI OGP-K</b></p>	<p>Helburua da mekanismo bat ezartzea, erantzukizun politikoa edo funtzio publikoa duten pertsonen beren jarduerak publikoari buruzko kontuak eman ditzaten. OGPK hori bultzatzen du.</p>

<b>HELBURUA LORTZEKO BALIABIDEAK</b>	<p>Eusko Jaurlaritzako Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Behatokiko zuzendaritzako giza taldeak. Proiektu honetan 5 pertsona arituko dira.</p> <p>Konpromiso honetarako, gutxienez, 50.000 € bideratu dira, sistemetan egin daitezkeen garapenetarako. Proiektua sustatzeko, gutxienez, 25.000 € bideratu dira.</p>		
<b>EKINTZA ETA EMAITZA NAGUSIAK</b>	<b>Hasiera data</b>	<b>Amaiera data</b>	<b>Egoera</b> <i>(hasi gabe, hasiberri, aribidean, amaitua)</i>
1) Erakundearteko lantaldea eta 1go konpromisoaren lantaldea osatzea	2018ko IRAILA	2018ko URRIA	Amaituta
2) Kontuak emateko printzipioak adostea Agintaldiko planak	2018ko IRAILA	2019ko URTARRILA	Hasita
3) Agintaldiko planen jarraipena egiteko mekanismoak adostea	2018KO AZAROA	2019KO OTSAILA	Hasi gabe
4) Zuzentarau metodologikoen protokolo eta tresna-kutxa bat egitea, gizarte-auditoretza parte-hartzaileko eremuak eta mekanismoak txertatzeko	2018KO ABENDUA	2019KO MARTXOA	Hasi gabe
5) Plataforma irekiaren definizio funtzionala	2019KO OTSAILA	2019KO APIRILA	Hasi gabe
6) Parte-hartze eta komunikazio gakoak. Aldizka argitaratzeko eskema eta jakinarazteko formatuak.	2019KO URTARRILA	2019KO APIRILA	Hasi gabe
7) Eredu pilotua ezartzea	2019KO UZTAILA	2019KO ABENDUA	Hasi gabe

8) Eredu pilotua ebaluatzea.	2020KO APIRILA	2020KO EKAINA	Hasi gabe
NOLA JAKINGO DUGU KONPROMISOAREKIN ONDO ARI GARELA	NOLA JAKINGO DUGU GERORA BALIO IZAN DUELA		ZENBAIT DATU
1) Kontuak emateko eredia ezartzea, dokumentu-gida baten bidez.	1) Ezarpen maila.		1) Kontuak emateko prozesu bat abian jartzeko, dokumentua erabiltzen duen erakunde kopurua: 9
2) Informazioa emateko egitura ezartzea, planak edo agintaldiko estrategiak finkatzeko.	2) Ezarpen maila		2) Beren planetarako edo agintaldiko planetarako informazio egitura hau erabiltzen duen egitura kopurua: 9
3) 2030 agenda. Genero-ikuspegia, gazteak eta haurrak, ingurumena...	3) Gogobetetasun maila (parte hartzeko eragozpenak dituzten taldeen arabera)  Parte-hartze maila		3) Informazio-tresnen eta planen balorazioa, 1-5 eskalan: 3  Partaidetza eta auditoretza prozesuen balorazioa, 1-5 eskalan: 3  Kontuak emateko prozesuetan parte hartzen duten ordezkarien ehunekoa (taldearen arabera): %60
4) Aplikazioaren beta eredia edo plataforma Irekia	4) Beste gobernu batzuekin lankidetzan aritzea eta bat egitea, probatzeko eta testatzeko		4) Kopurua: 9
5) Proiektuaren talde sustatzaileko kidea ez den udalerrri batean eredu pilotu bat abian jartzea	5) Ezarpen maila		5) Ezarpen kopurua: 1
6) Parte-hartzaileak eta gogobetetasun maila	6) Erakundearen eta parte-hartzaileen gogobetetasun maila prozesuarekin		6) Datuak: a. Arduradun politikoen prozesuari buruzko balorazioa, 1-5 eskalan: 3  b. Eredu pilotuan parte hartu duten pertsona eta erakundeen prozesuari buruzko balorazioa, 1-5 eskalan: 3

HARREMANETARAKO INFORMAZIOA			
<b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b>	Luis Petrikorena Arbelaiz		
<b>ZEIN ERAKUNDETAN LAN EGITEN DUEN</b>	Gobernu Irekiako zuzendaritza		
<b>POSTA ELEKTRONIKOA ETA TELEFONOA</b>	<a href="mailto:lpetri@euskadi.eus">lpetri@euskadi.eus</a> / 945018049		
PARTE – HARTZAILEAK, PERTSONAK ZEIN ERAKUNDEAK			
<b>ERAKUNDE PUBLIKOAK</b>	Eusko Jaurlaritza Arabako Foru Aldundia Bizkaiko Foru Aldundia Gipuzkoako Foru Aldundia Bilboko Udala Donostiako Udala Gasteizko Udala EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartea		
<b>GIZARTE ZIBILEKO ERAKUNDE ETA PERTSONAK</b>	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Bilboko Emakumeen Kontseilua		
<b>LAN - TALDEA</b>	<b>ERAKUNDEAK:</b> 1. Eusko Jaurlaritza 2. Bizkaiko Foru Aldundia 3. Bilboko Udala 4. EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartea 5. Erandioko Udala 6. Getxoko Udala	<b>HIRITARRAK ETA ENTITATEAK:</b> 7. Arantxa Otaolea 8. José Antonio Díez Alday 9. Laura Vizcaino 10. Andoni Lastra 11. Maialen Olabe	<b>PERTSONA ADITUAK:</b> 12. Antxon Gallego 13. Joseba Egia o Teresa Hormaeche 14. Paul Gurmendi 15. Eneko Agirre 16. Goizalde Atxutegi



**K2– OPEN DATA EUSKADI ETA LINKED DATA**

**2018ko IRAILAREN 1etik – 2020ko ABUZTUAREN 31ra**

<b>NORTZUK BULTZATUKO DUTE KONPROMISOA</b>	Eusko Jaurlaritz Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza	Bizkaiko Foru Aldundia Gobernantza Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusia	
<b>KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA</b>			
<b>ZEIN DA ERRONKA</b>	<p>Administrazio publikoek duten informazioa behar dute herritarrek: ikertzeko; gure gizartearen errealitatea ezagutzeko; aberastasuna, kultura, ezagutza eta abar sortzeko.</p> <p>Baina informazio hori ez da erabiltzen (gaur egun 3.400 dataset Open Data Euskadin daude argitaratuta, eta horietako 672 federatuta daude Gasteiz eta Bilboko Udaletan eta Gipuzkoako Foru Aldundian). Sarri, informazio hori sakabanatuta, osatu gabe edo eguneratu gabe dagoelako gertatzen da hori; beste batzuetan, informazioa ez delako publikoa edo zaila delako herritarrek dokumentu batean eskuratzea edo batzea.</p> <p>Arazo hori konpontzeko bide bakarra administrazioak eta herritarrak denak batera lankidetzan aritzea da.</p>		
<b>ZER DAKAR KONPROMISOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolatuta nahiz antolatu gabe dauden herritarrentzat, ikertzaileentzat, kazetariarentzat, enpresentzat, ikasleentzat... interesgarrienak diren edukiak identifikatzea.</li> <li>- Formatu irekietan argitaratzea, berriz erabili ahal izateko, eta administrazio guztientzat eta herritarrentzat eredu bakarra izan dadin. Gero, eredu hori izango da administrazio publikoek erabiliko dutena beste datu ireki batzuk argitaratzeko.</li> <li>- Informazioa lokalizatzen eta ulertzen lagunduko duten aurkezpenak sortzea.</li> </ul> <p>Helburua da ezagutza irekia bultzatzea, eta, horretarako, datu publikoak zabaltzea eta aberastasuna, kultura eta ezagutza sortuko duten edo/eta kudeaketa publikoko kontuak ematen lagunduko duten zerbitzu berriak garatzea.</p>		
<b>NOLA LAGUNDUKO DU KONPROMISOAK ERRONKARI AURRE EGITEN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarren motibazioak eta nahiak elkarlanean aztertzea.</li> <li>- Administrazio guztietan datuak irekitzeko euskal eredu bakarra ezartzea, datu pertsonalak behar bezala babestuta betiere.</li> <li>- Herritar profil desberdinek informazioa eskuratzeko eta ulertzeko dituzten zailtasunak aztertzea, eta informazioa lokalizatzen, ulertzen eta aztertzen lagunduko duten bitartekoak garatzea, tutorialak eta erabiltzeko laguntza-euskarriak barne.</li> </ul>		

<p><b>ZERGATIK BALORATZEN DU KONPROMISO HORI OGP-K</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio gehiago argitaratzeko, horren kalitatea hobetzeko, herritarrek informazioa eskuratzeko bideak errazteko eta informaziorako eskubidea onartzeko bidea ematen duelako... eta gardentasuna OGPK bultzatzen duen funtsezko balioa delako.</li> <li>- Guztien ongiari buruz eragiteko edo erabakiak hartzeko aukerak sortzeko edo, ezagutza handiagoa izanik, herritarrek horretarako dituzten gaitasunak hobetzeko, eta herritarrek gai publikoetan parte-hartzea bultzatzen duelako. OGPK bultzatzen duen balioa da hori.</li> </ul>		
<p><b>HELBURUA LORTZEKO BALIABIDEAK</b></p>	<p><b>Barne-baliabideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankidetzarako erakundearteko taldea: Eusko Jaurlaritza (4 pertsona), hori foru-aldundiak (3 pertsona) eta 3 hiriburu-udalak (3 pertsona).</li> <li>- Entitate bakoitzerako zehazten diren datu-multzoak irekitzeko gastuak administrazio bakoitzak ordainduko ditu, horien normalizaziorako ezartzen diren estandarrak betez.</li> <li>- Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuko dituzte kanpoan kontratatzen diren lanek eragiten dituzten gastuak.</li> </ul> <p><b>Kanpo-kontratazioetarako aurrekontua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarren demandak hasieran aztertze eta ireki eta argitaratu behar diren datuak hautatzeko kontratua. 18.149 euro.</li> <li>- Datu publikoak irekitzeko euskal eredia prestatzeko eta informazioa homogeneizatzeko kontratua (kostua ez da zehaztu).</li> <li>- Informazioaren aurkezpenak (aplikazioak, bilatzaileak, bistaratzeak...) sortzeko kontratua (kostua ez da zehaztu).</li> </ul>		
<p><b>EKINTZA ETA EMAITZA NAGUSIAK</b></p>	<p><b>Hasiera data</b></p>	<p><b>Amaiera data</b></p>	<p><b>Egoera</b> <i>(hasi gabe, hasiberri, aribidean, amaitua)</i></p>
<p><b>1)</b> Erakundearteko lantaldea osatzea</p>	<p>2018ko iraila</p>	<p>2018ko iraila</p>	<p>Amaituta</p>
<p><b>2)</b> 2. konpromisoaren lantaldea osatzea</p>	<p>2018ko urria</p>	<p>2018ko urria</p>	<p>Amaituta</p>
<p><b>3)</b> Herritarrek eskatzen dituzten datuak hautatzea</p>	<p>2018ko azaroa</p>	<p>2019ko urtarrila</p>	<p>Hasi gabe</p>

4)	Datuak irekitzea eta homogeneizatzea 1. fasea	2019ko otsaila	2019ko abendua	Hasi gabe
5)	Datu publikoak irekitzeko eta informazioa homogeneizatzeko euskal eredia	2019ko otsaila	2019ko abendua	Hasi gabe
6)	Datu irekiak argitaratzea 1. fasea	2019ko ekaina	2019ko abendua	Hasi gabe
7)	Datuen aurkezpen ulergarria 1. fasea:	2019ko ekaina	2019ko abendua	Hasi gabe
8)	Datuak irekitzea eta homogeneizatzea 2. fasea	2020ko urtarrila	2020ko ekaina	Hasi gabe
9)	Datu irekiak argitaratzea 2. fasea	2020ko ekaina	2020ko abuztua	Hasi gabe
10)	Datuen aurkezpen ulergarria 2. fasea	2020ko ekaina	2020ko abuztua	Hasi gabe
<b>NOLA JAKINGO DUGU KONPROMISOAREKIN ONDO ARI GARELA</b>			<b>NOLA JAKINGO DUGU GERORA BALIO IZAN DUELA</b>	<b>ZENBAIT DATU</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badago identifikatuta herritarren intereseko datu-multzo adostu bat, EAEko administrazioetan kokatua.</li> <li>- Datu publikoak irekitzeko eta informazioa homogeneizatzeko euskal eredu bat dago.</li> <li>- EAEko erakunde batzuei eragiten dieten eta herritarren interesekoak diren datu-multzo interesgarriak daude irekitzeko eta argitaratzeko, aurrez ezarritako irizpide kualitatiboak eta kuantitatiboak dituztenak.</li> <li>- Plana amaitzean, ezarritako eredia % 80an betez argitaratu dira hautatutako datuak.</li> <li>- Datuak ulertzeko aurkezpen bat sortu da urtean (zehaztu gabe, lotu beharreko datu-multzoen zailtasunaren arabera).</li> <li>- Konpromiso-taldeko partaideen gogobetetze-maila (7tik gorakoa).</li> <li>- Foru Erregularreko partaideen gogobetetze-maila azken prozesuarekin eta produktuekin (7tik gorakoa).</li> </ul>			<ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu irekien kontsulta-maila (gaur egungoak baino askoz altuagoa).</li> <li>- Aurkezpen ulergarrien kontsulta-maila.</li> <li>- Datu publikoak irekitzeko eta informazioa homogeneizatzeko ereduaren ezarpen-maila (erakunde sustatzaileen % 100ean).</li> <li>- Herritarrek informazio publikoarekin duten gogobetetze-maila.</li> <li>- Datu publikoak irekitzeko jardun ona trukatzeko aldera, OGPko beste kide batzuekin egin diren lankidetzen edo itunen kopurua.</li> </ul>	

**HARREMANETARAKO INFORMAZIOA**

<b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b>	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino
<b>ZEIN ERAKUNDETAN LAN EGITEN DUEN</b>	HERRITARRAK HARTZEKO ETA ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO ETA HOBETZEKO ZUZENDARITZAko proiektuaren arduraduna
<b>POSTA ELEKTRONIKOA ETA TELEFONOA</b>	k-uriarte@euskadi.eus 945018473

**PARTE – HARTZAILEAK, PERTSONAK ZEIN ERAKUNDEAK**

<b>ERAKUNDE PUBLIKOAK</b>	Eusko Jaurlaritza Arabako Foru Aldundia Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia Bilboko Udala	Donostiako Udala Gasteizko Udala
<b>GIZARTE ZIBILEKO ERAKUNDE ETA PERTSONAK</b>			
<b>LAN - TALDEA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ainhoa Franco. Bilbao.eus-en arduradun teknikoa. Bilboko Udala.</li> <li>2. Aitor San Sebastián, Open Dataren arloan herritar aditua.</li> <li>3. Alex Lara. EJIeko (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte) proiektuen burua.</li> <li>4. Ana María Fernandez, ekonomialaria.</li> <li>5. Ana Belén Otero, ASAFESeko (Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien senideen Arabako elkarte) kidea.</li> <li>6. Anabella Barroso. Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte. Eta Bilboko Gotzaindegia Artxiboen Elizbarrutiko Zerbitzuko zuzendaria.</li> <li>7. Ana Vallejo. Gardentasunaren eta Edukien Unitateko arduraduna. Gasteizko Udala.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>8. Arantzazu Oregi, Bergarako Udaleko artxiboen teknikaria.</li> <li>9. Diego Alvarez. Datu Irekien Zerbitzuko arduraduna. Bizkaiko Foru Aldundia</li> <li>10. Elena Sanz. Wikimedia Españako idazkaria.</li> <li>11. Esther Larrañaga Galdos. Modernizazioko teknikaria. Gipuzkoako Foru Aldundia.</li> <li>12. Estibaliz Yagüe. DonostiaTIKeko analista-programatzailea. Donostiako Udala</li> <li>13. Fernando José Villatoro, Deustuko Unibertsitatea, Deusto cities lab katedra.</li> <li>14. Ibai Zabaleta, Hirikilabs-Tabakalerako arduraduna.</li> <li>15. Inmaculada de Miguel. Gizarte Harremanetarako, Azterketarako eta Modernizaziorako zuzendaria. Arartekoa.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>16. Imanol Argüeso. Open Data Euskadiko teknikaria. Eusko Jaurlaritza.</li> <li>17. Ignacio Romera, Innokey SLko ingeniaria.</li> <li>18. Javier Aguirre. Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Informatika Zerbitzuko arduraduna. Arabako Foru Aldundia.</li> <li>19. Josu Aramberri, i2basque-ko koordinatzailea.</li> <li>20. Koldobike Uriarte. OGP Euskadi proiektuaren arduraduna. Eusko Jaurlaritza.</li> <li>21. Maria Aranzazu Otaolea. Bilboko Emakumeen Kontseilua.</li> <li>22. Pilar Pascual. EJIeko (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte) teknikaria.</li> <li>23. Teresa Roca, herritarren parte-hartzerako aholkularia.</li> </ol>

**K3 – HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ILAB-A**

**2018ko IRAILAREN 1etik – 2020ko ABUZTUAREN 31ra**

<b>NORTZUK BULTZATUKO DUTE KONPROMISOA</b>	Eusko Jaurlaritzza Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza	Gipuzkoako Foru Aldundia Herritarren partaidetzarako Foru Zuzendaritza	Innobasque Berrikuntza publikorako unitatea
--------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------

**KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA**

<b>ZEIN DA ERRONKA</b>	<p>Dena aldatu egiten da. Baita aurre egin beharko diegun beharrak eta gizarte-arazoak ere. Horregatik, gaurtik hasita eta aldaketa horietara aurreratzeko, urratsak eman behar ditugu politika egiteko modu berri baterantz, konfiantzan eta herritar guztiaren partekatutako eta konprometitutako erantzukizunean oinarrituta.</p> <p>Arlo “komunari”, “kolektiboari”, jaramon egiteak herritarren parte-hartzea eskatzen du, baina baita gobernatzeko modua irekia izatea ere. Gure etorkizuneko kezkei eta beharrei erantzunon dieten erantzunak elkarrekin garatzea, eta ahalik eta ondoen, gainera.</p>
<b>ZER DAKAR KONPROMISOAK</b>	<p>Laborategi bat sortzea ikerketak egiteko, entseguak egiteko, ikasteko eta elkarrekin konponbide zehatzak eta erabilgarriak bilatzeko.</p> <p>Lan-espazio egonkor bat garatzea erakundeentzat eta herritarrentzat, partaidetzan berrikuntzak aurkitzeko eta partaidetzaren mugak eta lorpenak mahaigainean jartzeko. Zintotasunetik eta zehaztasunetik abiatuta, Euskadin herritarren parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak eta prozedurak sortu nahi ditugu. Eraitza ez ezik, prozesua ere kontuan hartuta, eta Euskadiko jende askoren bakarkako edo taldekako partaidetzaren balioa aitortuta.</p>
<b>NOLA LAGUNDUKO DU ILAB-AK ERRONKARI AURRE EGITEN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankidetzan (erakundeen artean, erakunde eta herritarren artean, etab.) landu beharreko arazoak adosteko.</li> <li>- Parte-hartzeari buruzko ikuskerak batzeko, aniztasuna (ideologikoa, politikoa, etab.) bermatuta.</li> <li>- Konfiantza handiagoa eraikitzeko eta gardenagoak izateko, modu etikoan lan eginda.</li> <li>- Hobeto koordinatzeko eta ahaleginak parte-hartzean batzeko.</li> <li>- Esperimentatzeko eta aldi oro aldatzen ari den errealitatera egokitzeko.</li> <li>- Parte hartzeko kanal, metodo, tresna eta eredu berriak –malguak eta eguneratuak– probatzeko.</li> <li>- Horien erabilera zabaltzeko eta sustatzeko, gure ingurunean eta erakundeetan benetako aldaketa sortzeko.</li> </ul>

<p><b>ZERGATIK BALORATZEN DU KONPROMISO HORI OGP-K</b></p>	<p><b>Gardentasuna:</b> informazio gehiago eta hobeia izango dugu (zertan hartu nahi dugun parte, nola hartu parte, etab.).  <b>Parte-hartzea:</b> interes orokorra eraikitzean “eragina izan” ahalko dugu (aparte utzita parte-hartzeak erabakitzeko balio duen ala ez, interes orokorra deitzen dugun hori eraikitzen laguntzea interesatzen zaigu, interes orokor horretatik hartu behar baitira funtsezko erabakiak “arlo publikoa” kudeatzeko).  <b>Kontuak ematea:</b> “arlo publikoa” nola kudeatzen den azaltzen lagunduko dugu (herritarrentzako pedagogia).</p>		
<p><b>HELBURUA LORTZEKO BALIABIDEAK</b></p>	<p><b>Barne-baliabideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakundeen arteko lankidetzarako taldea, teknikoa, hiru proiektu-arduradunek osatua, bana erakunde bakoitzeko (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Innobasque)</li> <li>- Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Innobasquek finantzatuko dituzte kanpoan kontratatzen diren lanei dagozkien gastuak</li> <li>- Lau erakundek/sailek hartuko dituzte beren gain proiektu pilotuak inplementatzearen ondoriozko kostuak.</li> </ul> <p><b>Kanpo-kontratazioetarako aurrekontua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ilab-aren dinamizazio, idazkaritza tekniko eta gobernantza-eredurako kontratua (18.149 euro)</li> <li>- ilab-aren mapaketa eta kontzeptualizatorako kontratua (18.149 euro)</li> <li>- Proiektu pilotuen diseinu eta inplementaziorako kontratuak (kostua zehazteko dago)</li> <li>- ilab-aren emaitzen protokolizazioan eta horren ebaluazioan laguntzeko kontratua (kostua zehazteko dago)</li> </ul>		
<p><b>EKINTZA ETA EMAITZA NAGUSIAK</b></p>	<p><b>Hasiera data</b></p>	<p><b>Amaiera data</b></p>	<p><b>Egoera</b> (hasi gabe, hasiberri, aribidean, amaitua)</p>
<p><b>1)</b> Praktika berritzaileen mapaketa, hauek barne hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreferentziazko zentroetara bisitak egitea akatsetatik eta ondo egindakotik ikasteko eta balio erantsiko harremanak egiteko.</li> <li>- Euskadin egin diren parte hartzeko prozesu (lotesleak edo eztabaidatzekoak) garrantzitsuetako datuak.</li> <li>- Kontrastea adituekin eta OGP tokiko sareko gobernuekin (São Paulo eta Pariseko laborategiak)</li> <li>- Nazioartean zein estatu mailan dauden mapaketak</li> </ul>	<p>2018ko URRIA</p>	<p>2018ko ABENDUA</p>	<p>HASI GABE</p>
<p><b>2)</b> iLAB-aren kontzeptualizazioa – zer da</p>	<p>2018ko URRIA</p>	<p>2018ko OTSAILA</p>	<p>HASI GABE</p>

<p>3) iLAB-aren gobernantza-eredua</p>	<p>2018ko URRIA</p>	<p>2018ko OTSAILA</p>	<p>HASI GABE</p>
<p>4) Bi pilotu identifikatzea, hauek kontuan hartuta: herritarren interesa, herritarren inplikazioa zertan den beharrezkoa (adibidez, aurretik gatazka bat dagoelako) eta erakundeen konpromisoa horri heltzeko. Pilotuak eraldatzaileak izan behar dira eta erronka dakartenak</p> <p>Pilotuak identifikatzeko gizarte zibilaren partaidetza izango duen prozesu irekia garatuko da. Jasotako proposamenak erakunde publikoen artean eztabaidatuko dira, proposamenen irismena eta metodologiak doitzeko. Proposamen horietako bi hautatu eta pilotu bezala garatuko dira erakunde publikoen ardurapean. Erakunde publikoak pilotuaren kostuak finantzatuko ditu eta talde publiko – pribatu bat sortuko du bere hedatze egokia zaintzeko. Proposatzen da bi pilotu horiek Eusko Jaurlaritzak sustatzea, 2019. urtean udal- eta foru-hauteskundeak izango direlako</p>	<p>2018ko OTSAILA</p>	<p>2018ko MARTXOA</p>	<p>HASI GABE</p>
<p>5) Bi pilotuak egitea (behin-behineko datak)</p>	<p>2019ko URTARRILA</p>	<p>2019ko ABENDUA</p>	<p>HASI GABE</p>

<p>6) Bi pilotu identifikatzea, hauek kontuan hartuta: herritarren interesa, herritarren inplikazioa zertan den beharrezkoa (adibidez, aurretik gatazka bat dagoelako) eta erakundeen konpromisoa horri heltzeko. Pilotuak eraldatzaileak izan behar dira eta erronka dakartenak</p> <p>Pilotuak identifikatzeko gizarte zibilaren partaidetza izango duen prozesu irekia garatuko da. Jasotako proposamenak erakunde publikoen artean eztabaidatuko dira, proposamenen irismena eta metodologiak doitzeko. Proposamen horietako bi hautatu eta pilotu bezala garatuko dira erakunde publikoen ardurapean. Erakunde publikoak pilotuaren kostuak finantzatuko ditu eta talde publiko – pribatu bat sortuko du bere hedatze egokia zaintzeko. Proposatzen da bi pilotu hauek udal batek eta foru-aldundi batek sustatzea.</p>	<p>2019ko IRAILA</p>	<p>2019ko URRIA</p>	<p>HASI GABE</p>
<p>7) Bi pilotuak egitea (behin-behineko datak)</p>	<p>2020ko URTARRILA</p>	<p>2020ko EKAINA</p>	<p>HASI GABE</p>
<p>8) Ebaluazio partaidetua</p>	<p>2020ko URTARRILA</p>	<p>2020ko UZTAILA</p>	<p>HASI GABE</p>
<p>9) Orokortzerako orientabideak</p>	<p>2020ko URTARRILA</p>	<p>2020ko UZTAILA</p>	<p>HASI GABE</p>
